

Haurrendako Antzerki Testuen XX. Lehiaketa

Oinarriak 2011

1. Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako pertsonek orok hartzen ahal dute parte.

2. Egile bakoitzak, gehienez ere, hiru testu aurkezten ahal ditu, gaztelaniaz edo euskaraz idatziak, ondoko baldintzekin bat:

- * Jatorrizkoak eta argitaragabeak izatea. Ezin izanen da testu bera bi modalitateetan aurkeztu.
- * Beste inongo lehiaketatan saririk jaso ez izana.
- * Antzezlanak inongo konpainiak -profesionala izan ala ez- antzeztu ez izana.
- * Antzezlanak haurrendako lanek izaten ohi duten besteko iraupena izan behar du.

3. Lanak lerro artean tarte bikoitza utzirik idatzi behar dira, eta hiru kopia igorriko dira, gutunazal itxi batean sartuta. Gutunazalean egilearen izenordea paratuko da, bai eta "Haurrendako Antzerki Testuen XX. Lehiaketa" testua ere. Lanak ondoko helbidera bidali behar dira:

Nafarroako Antzerki Eskola.
San Agustin k., 5. 31001, Iruña.

Aipatutako gutunazalaren barruan beste gutunazal itxi bat sartuko da, eta bertan ondoko datuak:

- * Egilearen curriculum laburra eta, horren goiko aldean, izen-deiturak, helbidea eta telefonoa.
- * NANen edo pasaportearen fotokopia.
- * Aitorpen idatzia, non adieraziko baita aurkeztutako lana jatorrizkoa eta argitaratu zein estreinatu gabea dela, eta ez duela inongo lehiaketatan saririk jaso. Halaber, egileak berariaz aitortuko du deialdiaren oinarriak ezagutu eta onartzen dituela.

Gutunazal horren kanpoko aldean lana aurkezteko erabiltzen den izenordea idatzi behar da. Lanak aurkezteko epea 2011ko maiatzaren 16an amaituko da.

4. Epaimahaia Nafarroako Antzerki Eskolak izendatuko du, eta hiru pertsonak osatuko dute, kategoria bakoitzeko, hau da, hiru gaztelaniazkoan, eta beste hiru euskarazkoan.

5. Hainbat irizpide finkatu dira, saritu beharreko testuak aukeratzeko: kalitate literarioa, sormena, originaltasuna eta lana taularatzeko modukoa izatea. Epaimahaiaren

epaia apelaezina izanen da, eta 2011ko ekainaren bigarren hamabostaldian emanen da jakitera. Saririk jaso ez duten egileek lanak itzultzeko eskatzen ahalko dute Nafarroako Antzerki Eskolan, 2011ko abuztu osoan. Epe hori iraganda, lanak deuseztatuko dira.

6. Saritutako lana Nafarroako Antzerki Eskolaren eta Iruñeko Udalaren esku geratuko da, urtebetez, hura argitaratu edota antzezteko. Hortik aurrera, egileak lana erabiltzen ahalko du, betiere sariaren izena eta hori eman dioten erakundeak honela aipatzen baditu:

"Haurrendako Antzerki Testuen XX. Lehiaketaren saria, Iruñeko Udaleko Kultura Alorrak eta Nafarroako Antzerki Eskolak emana".

Saritutako egileak Nafarroako Antzerki Eskolari eta Iruñeko Udalari emanen dizkie lanaren antzezpengatik egokitu ahal zaizkion egile eskubideak, urte bete batez saria jasotzen duen unetik aurrera, halako moduz non lehiaketaren antolatzaileei ez zaien gasturik sortuko kontzeptu honengatik.

7. Diru-sari bakarra finkatu da kategoria bakoitzean (gaztelaniaz zein euskaraz), Iruñeko Udaleko Kultura Alorrak emana eta 2.200 € (bi mila eta berrehun euro) jotzen dituen. Kopuru horretatik aplikagarriak diren zerga-arauak betez atxiki beharrekoa deskontatuko da.

Epaimahaiak, egokia joz gero, zatitu ahal izanen du saria, bi akzesitetan. Halaber, saria eman gabe utzi ahalko du.

8. Jarduera honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea.



BASES
2011

XX Concurso de
Textos Teatrales
dirigidos a público
infantil



XX Concurso de Textos Teatrales dirigidos a público infantil

Bases 2011

1. Puede participar en este concurso cualquier persona, mayor de 18 años, que lo desee.

2. Cada autor o autora puede presentar hasta tres textos, escritos en castellano o en euskera, siempre que reúnan los siguientes requisitos:

- * Ser textos originales e inéditos, no pudiéndose presentar un mismo texto en ambas modalidades.
- * No haber sido premiados en cualquier otro certamen.
- * No haber sido estrenados por compañía alguna (profesional o no).
- * La duración será la habitual de una representación dirigida a público infantil.

3. Las obras, mecanografiadas a doble espacio, por triplicado ejemplar, se remitirán en sobre cerrado y bajo seudónimo, con la indicación "XX Concursos de textos teatrales dirigidos a público infantil", a:

Escuela Navarra de Teatro, C/ San Agustín-5,
31001 Pamplona.

En el sobre al que se hace referencia en el párrafo anterior, se introducirá otro, cerrado, con la siguiente información:

- * Breve curriculum del autor o autora, encabezado con su nombre, apellidos, dirección y teléfono.
- * Fotocopia del D.N.I. o pasaporte.
- * Declaración escrita de que la obra presentada es original, inédita, no estrenada y de que no ha obtenido premio en otros certámenes. Así mismo, deberá indicarse expresamente que el autor o la autora conoce y acepta las bases de esta convocatoria.

En el exterior de este sobre aparecerá el seudónimo bajo el que se presenta la obra.

La fecha límite de entrega es el 16 de mayo de 2011.

4. El jurado será nombrado por la Escuela Navarra de Teatro y estará compuesto por tres personas en cada una de las dos categorías, castellano y euskera.

5. La selección de textos candidatos al premio se realizará de acuerdo a la calidad literaria, la creatividad, la originalidad y la posibilidad de puesta en escena. El fallo del jurado, que será inapelable, se hará público en la segunda quincena de junio de 2011.

Los autores de los textos no premiados podrán solicitar su devolución a la Escuela Navarra de Teatro durante el mes de agosto de 2011. Concluido ese plazo, los originales se destruirán.

6. La obra premiada quedará a disposición de la Escuela Navarra de Teatro y del Ayuntamiento de Pamplona durante un año, a efectos de su publicación y/o puesta en escena. Posteriormente el autor o autora podrá hacer uso de su texto siempre que haga figurar el nombre del premio y de las instituciones que lo han concedido:

"Premio del XX Concurso de textos teatrales dirigidos a público infantil, otorgado por el Área de Cultura del Ayuntamiento de Pamplona y la Escuela Navarra de Teatro"

El autor de la obra premiada cederá los derechos de autor que le puedan corresponder por la representación de ésta a la Escuela Navarra de Teatro y al Ayuntamiento de Pamplona, durante un año a partir de la concesión del premio, de tal forma que no se genere gasto por este concepto a la organización del concurso.

7. Se establece un único premio en metálico para cada categoría (castellano o euskera), otorgado por el Área de Cultura del Ayuntamiento de Pamplona, dotado con 2.200 €. (dos mil doscientos euros), cantidad de la que se descontarán las deducciones que deben ser retenidas en cumplimiento de la normativa fiscal aplicable.

El jurado, caso de que lo estime oportuno, podrá dividir el premio en dos accesits. Así mismo, podrá declararlo desierto.

8. La participación en esta actividad supone la total aceptación de las bases.

ONARRIAK 2011

Haurrendako
Antzerki Testuen
XX. Lehiaketa

